



# Kontzientzia- eragozpenetik bake-hezkuntzara



40 urte bizikidetza eraikitzen.

**Uzt. 17 2026**

**Kod. G14-26**

**Mod.:**

Aurrez aurrekoa

**Edizioa**

2026

**Jarduera mota**

Uda Ikastaroa

**Data**

Uzt. 17 2026

**Kokalekua**

Miramar Jauregia

**Hizkuntzak**

Euskara Gaztelera

**Balio akademikoa**

10 ordu

**Webgunea**

<https://egk.eus/eu/hasiera/>

**Antolakuntza Batzordea**



Fundación  
BBVA



# Azalpena

“Kontzientzia-eragozpenetik bake-hezkuntzara: 40 urte bizikidetzara eraikitzen” Uda Ikastaroak ibilbide historiko bat proposatzen du Euskadiko bakearen esparruaren bilakaerari buruz, sustrai antimilitaristetatik eta kontzientzia-eragozpenetatik hasi eta “bake-teknikarien” egungo zereginera eta bakerako hezkuntzara arte. Jarduerak mahai-inguruak, dinamika parte-hartzaileak, eztabaidak eta belaunaldien arteko elkarrizketarako espazioak konbinatzen ditu, parte-hartzaileak bakearen eraikuntzan eragile aktiboak izan daitezzen eta ez informazioaren hartzaile hutsak.

Ikastaroak adin eta esperientzia desberdinetako pertsonak biltzea du helburu, gai hauek lantzeko: bakearen genealogia, feminismoa eta interseksionalitatea, memoria eta transmisioa, bakerako hezkuntza, kultura eta erlijio aniztasuna, aro digitaleko bakea, eta bake arloko horretako proiektu esanguratsuak. Horretarako, gazteek horrelako proiektuetan duten parte-hartzea eta proiektu horietatik jasotzen dituzten onurak aztertuko dira, baita biktimena eta haiengan duten eragina ere.

Ikastaroak mahai-inguruak, dinamika parte-hartzaileak, eztabaidak eta giza liburutegiak konbinatzen ditu, eta belaunaldien arteko elkarrizketarako espazioak sortzen ditu. Parte-hartzaileen esperientzia aktiboa lehenesten da, bakea eraikitzeko eragile bihurtzen baitira, hausnarketaren, esperientzien trukearen eta pil-pilean dauden auzien eta proiektu errealean eztabaidaren bidez. Jarduerak lankidetzara, pentsamendu kritikoa eta ezagutzaren talde-eraikuntza sustatzen dituzte. Era horretan, ikaskuntza praktikoa eta esanguratsua ziurtatzen da.

## Helburuak

Euskadiko bake-mugimenduak azken 40 urteetan izan duen bilakaera ikusaraztea.

Bakerako eta gatazkak modu praktiko eta parte-hartzailean konpontzeko hezkuntza sustatzea.

Feminismoak eta interseksionalitateak bakea eraikitzeko egiten duten ekarpena ezagutaraztea.

Memoria historikoaren transmisioa bultzatzea, modu inklusibo eta hezitzailean, eta belaunaldien arteko elkarrizketari eta gazteen parte-hartzeari balioa ematea.

Bakearen arloko jardunbide egokiak eta proiektu nabarmenak aurkeztea, ekimen berriak inspiratzeko.

# Programa

2026-07-17

09:00 - 09:15	Erregistroa
09:15 - 09:25	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena <b>Iratxe Uriarte Eiguren</b>   Euskadiko Gazteriaren Kontseilua - PresidenteaHizkuntza: euskara <b>María Jesús Carmen San José López</b>   Eusko Jaurlaritza - Sailburu Justizia eta Giza eskubideakHizkuntza: español
09:25 - 09:55	“Bakearen denbora lerroa” <b>Monica De Albillos Eizaguirre</b>   Euskadiko Gazteriaren KontseiluaHizkuntza: euskara <b>Aitziber Blanco Goikoetxea</b> Hizkuntza: euskara
09:55 - 11:30	Mahai ingurua: “ 40 urte, hamaika istorio” <b>Aitziber Blanco Goikoetxea</b> (Moderatzailea)Hizkuntza: euskara <b>Iñaki Otamendi Gutierrez</b> Hizkuntza: euskara <b>Susana Harillo</b> Hizkuntza: euskara <b>Mabel Cañada</b> Hizkuntza: euskara <b>Paul Rios Garaizar</b> Hizkuntza: euskara <b>Maidar Martiarena Arrastua</b> Hizkuntza: euskara <b>Ainhoa Gomez Izagirre</b> Hizkuntza: euskara
11:30 - 12:00	Atsedena
12:00 - 13:30	“GIZA LIBURUTEGIAK” <b>Maidar Galardi</b> Hizkuntza: euskara <b>Rita Costa Cots</b>   Build UpHizkuntza: español <b>Ainhoa Azkarate Iriondo</b>   BaketikHizkuntza: euskara
13:30 - 15:00	Bazkaltzeko tartea
15:00 - 16:30	Mahai ingurua: “Etikasi: estereotipoak hausten” <b>Monica De Albillos Eizaguirre</b>   Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (Moderatzailea)Hizkuntza: euskara <b>Alberto Muñagorri Berdasco</b> Hizkuntza: español <b>Markel Alcaide Vilavedra</b> Hizkuntza: euskara <b>Markel de Bilbao Catediano</b> Hizkuntza: español <b>NAIARA ZAMARREÑO FERNANDEZ Zamarreño Fernandez</b> Hizkuntza: euskara <b>Aitana Jáñez Pedrayes</b> Hizkuntza: español <b>Ainhoa Azkarate Iriondo</b>   BaketikHizkuntza: euskara
16:30 - 17:00	Itxiera <b>Iratxe Uriarte Eiguren</b>   Euskadiko Gazteriaren Kontseilua - PresidenteaHizkuntza: euskara

## Zuzendaritza



### **Iratxe Uriarte Eiguren**

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua, Koordinatzailea

---

Zientzia Politikoak eta Administrazio publikoan graduatua EHUun. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko (EGK) presidentea 2023ko martxoaren 25tik. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluan lantalde teknikoa eta Batzorde Iraunkorra koordinatzailea. Bestalde EGKren aurpegia da eta euskal gazteriaren etan institutionen arteko zubi lanak bermantzen dituen pertsona

## Irakasleak



### **Markel Alcaide Vilavedra**

---

Nazioarteko Harremanetan graduatu zen Deustuko Unibertsitatean, eta gaur egun Nazioarteko Politikako master bat egiten ari da KU Leuvenen (Belgika). Bere ibilbide akademikoa giza eskubideen, gatazka osteko gizarteen eta memoria-politiken azterketan oinarritzen da, eta interes berezia du kultura-ondarean. Deustuko Unibertsitateko UNESCO Katedran praktikak egin ditu eta Etikasi bezalako hezkuntza proiektuetan parte hartu du, non Euskal Herria eta Ipar Irlanda bezalako testuinguruak bertatik bertara ezagutu ahal izan dituen. Haren gradu amaierako lanak lurralde horietako adiskidetzearen erronkari heltzen dio, ikuspegi kritiko batetik. Gainera, gizarte-boluntariotzako ekimenetan parte hartu du, eta "Cuando el odio no es suficiente" liburuaren egilea da. UNESCOrekin lotutako argitalpenetan ere lagundu du, kultura- eta hezkuntza-politiken esparruan.



### **Ainhoa Azkarate Iriondo**

---



### **Aitziber Blanco Goikoetxea**

---

Aitziber Blanco Goikoetxea. Licenciada en Derecho. Experiencia en acompañamiento a comunidades retornadas en Guatemala durante cuatro años. Activista por la paz, los derechos humanos y el diálogo en los movimientos sociales Elkarri y Lokarri, donde desempeñó tareas de organización, coordinación de campañas y facilitación de diálogos complejos. Formación acreditada en Psicodrama y formaciones complementarias en Comunicación No Violenta y en Círculos restaurativos. Durante los últimos 16 años facilita espacios de diálogo y acompaña procesos de convivencia en diferentes municipios vascos. Publicaciones "Bidelagun. Acompañamiento a procesos de diálogo en Euskal Herria. Algunos aprendizajes y un camino por recorrer. Publicado por el ICIP 2024



**Mabel Cañada**

---



**Rita Costa Cots**

---



**Monica De Albillos Eizaguirre**

---

Filosofian graduatu zen Euskal Herriko Unibertsitatean, eta Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean Etika Aplikatuko Masterra egin zuen. Bere ibilbide akademikoa hausnarketa etikora, giza eskubideetara eta aniztasunaren kudeaketara bideratu da. Eusko Jaurlaritzaren ETIKASI programan parte hartu zuen, motibazio politikoko indarkeriari lotutako biktimekin eta aktibistekin topaketetan, eztabaidetan eta elkarrizketa-guneetan parte hartuz. Era berean, nazioarteko prestakuntza zabaldu du Chiang Mai Unibertsitatean (Thailandia), non Budismoaren Psikologiako, Ekialdeko Pentsamenduko eta Thaiandiako Kulturako ikasketak egin zituen, giza jokabideari buruzko kulturarteko ikuspegietan sakonduz. Gainera, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko gatazka armatuei eta krisi humanitarioei buruzko ikerketa proiektu batean parte hartu zuen, segurtasun multidimentsionalaren erronketan oinarrituta. Gaur egun, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko bake- eta bizikidetzateknikariaren lanpostua betetzen du, eta bizikidetzan, etikan eta bake-kulturan hezteko programak diseinatzeko, koordinatzen eta dinamizatzen dihardu. Etengabe ikasten jarraitzeak eta gizartearen eta hezkuntzaren arloko erronka profesional berriei aurre egiteak motibatzen du.



**Markel de Bilbao Catediano**

---



## **Maider Galardi**

---

Soziologian graduatua, urteak daraman hedabideetan lanean eta kolaboratzen feminismoarekin lotura duten gaiak ardatz hartuta. Berria FM podcasteko ahotsa eta koordinatzailea izan da, euskaraz egindako era horretako lehenengoa. Proiektu horrekin Euskal Kazetaritzaren 2022ko saria jaso zuen narratiba berrien kategorian. Klitto Atari Digitaleko koordinazioan ere aritu zen, feminismoarekin lotutako gaiak solik lantzen zituen euskarazko lehenengo agerkari digitala. Hainbat urtez Berria egunkarian aritu da lanean eta Pikara Magazine gisakoetan ere kolaboraten du. Ikerlari gisa, Ikasketa Feministen eta Generokoen masterra egin zuen EHU/UPVn antropologia feministan espezializatuz, eta orain izen bera duen doktore programan ari da lanean Eusko Jaurlaritzako doktoreaurreko laguntza bati esker, AFIT antropologia feminista ikerketa taldean.



## **Ainhoa Gomez Izagirre**

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK)

---



## **Susana Harillo**

---



## **Aitana Jáñez Pedrayes**

---

Aitana Jáñez Pedrayes gazte profesionala da giza eskubideen eta bakearen eraikuntzaren arloan. Nazioarteko Harremanetan graduatu zen Deustuko Unibertsitatean, eta, Etikasi programan aritu

ondoren, Granadako Unibertsitateko Bake, Gatazka, Hezkuntza eta Giza Eskubideen Kulturako Masterrera bideratu zuen espezializazio akademikoa. Bertan, indarkeriaren historia hurbila Euskadiko belaunaldi berriei transmititzea eta egungo bake eta bizikidetzaren eragile gisa duen ahalmena ikertu zuen. Amnesty Internationalen bekadun eta aktibista gisa hasi zenetik NBERen Giza Eskubideen Bulegoan (ACNUDH) Genevan izandako esperientziara arte, Aitanak haurtzaroaren eta gaztaroaren eskubideak defendatu ditu, haien ahotsak entzun ez ezik, benetan kontuan har daitezkeen. Gaur egun, hurrek Haurren Plataforman parte hartzeko teknikari gisa garatzen du lan hori, hurrek eta nerabeek estatuan bizitza publikoan aktiboki parte hartzeko duten eskubidea bultzatuz. Bakerako hezkuntzaren eta globalaren eta tokikoaren arteko zubiak eraikitzearen aldekoa, Euskadiko memoria- eta bizikidetzaren proiektuei aktiboki lotuta jarraitzen du, betiere ikuspegi feminista eta interseksionaletik eta herritarren parte-hartzera bideratuta, gizartearen eraldatzeko motor gisa.



### **Mainer Martiarena Arrastua**

Bakeola

---



### **Alberto Muñagorri Berdasco**

---



### **Iñaki Otamendi Gutierrez**

DONOSTIAKO UDALA

---



## **Paul Rios Garaizar**

Erabat

---



## **María Jesús Carmen San José López**

---



## **Iratxe Uriarte Eiguren**

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua, Koordinatzailea

---

Zientzia Politikoak eta Administrazio publikoan graduatua EHUun. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko (EGK) presidentea 2023ko martxoaren 25tik. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluan lantalde teknikoa eta Batzorde Iraunkorra koordinatzailea. Bestalde EGKren aurpegia da eta euskal gazteriaren etan institucionen arteko zubi lanak bermantzen dituen pertsona



## **NAIARA ZAMARREÑO FERNANDEZ Zamarreño Fernandez**

---

# Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2026-07-17 ARTE
Orokorra	48,00 EUR
<a href="#">Matrikula murriztua orokorra</a>	41,00 EUR
<a href="#">Matrikula exentzia</a>	34,00 EUR
<a href="#">Gazte tarifa</a>	25,00 EUR
<a href="#">Ikastaroak guztiontzat</a>	41,00 EUR
<a href="#">Elkar</a>	41,00 EUR
<a href="#">Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatutako kide</a>	41,00 EUR

# **Kokalekua**

## **Miramar Jauregia**

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa